



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN EGOERAREN GAINEKOA, **2019KO UZTAILAREN 4KOA**

Mahastien egoeraren gaineko azken txostena egin zenetik, alegia, ekainaren 26tik, temperaturak oso altuak izan dira, erabat ezohikoak ekainean, eta eguneko erregistroak 40 ° C-tik gorakoak izan dira.

Loraketa eta fruituen hartze aldia goiz hasi zen Arabako Errioxan eta Arabako Txakolinaren eremuan, ekainaren hasieran, hain zuzen ere, eta hil honetan ohikoak izaten direnak baino temperatura baxuagoko egunak eta muturreko beroko egunak izan dira. Aurkako faktore horiek antzeko eragina dute mahastietan. Egun hotzetan hazkundera moteldu egin da, eta ekainean baino abuztuaren ohikoagoak diren temperaturak izan diren egunetan ere mahastiek geldialdi begetatiboa edota hazkunderaren etenaldia izan dute. Temperatura aldaketek polinizazioan eta fruituen hartzean izan duten eragina askotarikoa izan da, baina, oro har, ez dute lagundu prozesuaren garapena harmonikoa izan dadin, eta mahastietan mahats mordo oso argalak, luzeak eta bolumen gutxikoak ikus daitezke.

Loraketaren hasieran mahats asko zuten mahastiek amaitu dute fruitua hartzen, salbu eta apirilaren erdialdeko eta maiatzaren hasierako izozteen eragina gehien pairatu zuten lurzati urriek.

Mahastien egoera fenologikoari dagokionez, aleak ilar baten tamainakoak dira (K egoera), temperaturak normalizatzen hasi dira eta osasun egoera ona da.

Une honetan masa begetatiboa orekatzeko lanak egiten ari dira, besteak beste, hostokatzea eta ernatzea, eta hostoak sareetara lotzen eta bideratzen. Azalatze lanak ere egiten ari dira, landaredia arrotza kentzeko eta lurra makinak bertatik pasatzeko eta hezetasuna gordetzeko moduan uzteko, eta ohiko tratamendu fitosanitarioak ere egiten ari dira eta arlo horretan, momentuz, ez dago kezkatzeko arrazoirik.

Osasunari dagokionez, aipatu beharra dago sitsen lehenengo belaunaldiaren hegaldia ohikoa baino handiagoa izan dela; horrek, normalean, ez du kalterik eragiten, baina aurten, ziur aski beroa dela eta, markak utzi ditu mordoetan. Zenbait hostotan oidioaren sintomaren bat edo beste ikusi da, baina temperatura altuei, euri eskasiari eta tratamenduei esker, erabat kontrolatu ahal izan da. Momentuz ez dago mildiu orbanik topatu izanaren berririk.

Laburbilduz, fruitu hartzearen une kritikoa gainditu ostean, mahastiek garapen begetatibo egokia dute, nahiz eta egun gutxi batzuen atzerapen txikia izan. Lanak eta tratamenduak ohi bezala egiten ari dira. Une honetan, mordo kopuruari, luzerari eta mamitutako aleei buruzko datuak aztertuta, aurreikus daiteke lurzati gehienek ohiko uzta emango dutela edo zertxobait txikiagoa. Dena dela, zenbait mahastitan, batez ere ura dutenetan, mordo eta ale ugari daudela ikusi da, eta horietan komenigarria izango da bakantzea egitea.

Aiaraldeari dagokionez (Arabako Txakolina), fruitu hartzea egokia izan da eta une honetan osasun egoera primerakoa da eta ez oidio fokurik edota mildiu orbanik aurkitu. Horrenbestez, aurreikuspenak onak dira, baina ikusi beharko da nola egiten duten aurrera mahastiek lurzoruan oso ur gutxi utzi duten neguaren eta udaberriaren ostean.

Guardia, 2019ko uztailaren 4a.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua